



**ONE CLUB MAN AWARD**

# ***Bochini***

*Bi hamarkada  
Independienteren  
elastiko gorriarekin*





**Ricardo Enrique Bochini** (Zarate, Buenos Aires, Argentina, 1954ko urtarrilaren 25a) Avellanedako Club Atletico Independienteren (CAI) historiako idolo nagusizat jotzen da, edo beste modu batera esanda, Argentinako futbolaren historian ez da '10' zenbakidun hoberik izan, Diego Armando Maradona eta Lionel Messi munduko bi izarrak alde batera uzten baditugu. Bi izar horiek ez bezala, Bochak Argentinako deabru gorriekin bete zuen bere ibilbide osoa. Talde hau, zazpi lorpenekin, bere beira-arasetan Amerikako Libertadores Kopako garaikur gehien dituen taldea da, Europako Txapelaldunen Ligaren parekoa.

San Mames bisitatu zuen 1985eko abuztuaren 20an, Bazkidearen Omenaldiaren partida zela eta. Independienteren aurkako partida hartan, golik gabe amaitu zena, Bochinik kalitatezko distirak utzi zituen.

Atlantikoa zeharkatzeko migrazio handien garaian, Europako futbol dirudunean jokatzeko, Bochinik bere futbola ulertzen eta gozaten zuen herrialdean geratzea erabaki zuen, horregatik agian ez da hain ezaguna izango. Egia esan, benetako **One Club Man** bat izan zen, ez baitzuen elastiko gorria kendu erretiratu zen arte, 37 urte zituela. Gezurra badirudi ere, pentsatuta zuen baino lehen izan zen: 1991ko maiatzaren 5ean, Estudiantes La Platako atzelari batek belaunean jo zuen eta hor amaitu zen dena. "Erretiroa hartzea egokitu zitzaidan", esan zuen gorrotorik gabe.

Bochini, beharbada, Independienteren urrezko aroaren egile nagusia izan zen, eta hainbat titulu eskuratu zituen, nazionalak zein nazioartekoak: lau Libertadores Kopa (1973, 1974, 1975 eta 1984), hiru Interamericana Kopa (1973, 1974 eta 1976), bi Interkontinental (1973 eta 1984), Argentinako Lehen Mailako bi txapelketa (1983 eta 1989) eta bi Txapelketa Nazional (1977 eta 1978).

1972ko ekainaren 23an egin zuen debuta CAIrekin eta laster erakutsi zuen bere maila, hala nola 1974an Racing Club-i derbian egin zion 'hat-trick'-a. Daniel Bertoni sevillar ohiarekin bikote itzela osatu zuen, bat-bikoak eta konbinazioengatik ezaguna. Juventusen aurka, 1973an, bion artean jokoan elkartu ziren etengabe, eta bat-biko horietako batean Bocharen gola heldu zen, Dino Zoff mitikoari baloia loratuta. Modu horretan, Gorriari bere lehen Interkontinentala eskaini zion. Berarekin, Independientek bi aldiz lortu zuen munduko



talderik onena izatea (bigarrena, 1984an). Montevideoko Peñarol taldeari 1976ko Libertadoreen Kopan egindako goletako bat ere gogoratzen da, hamarkada bat geroago Maradonak bere slalom ospetsuarekin Ingalaterraren aurka 1986ko Mexikoko Munduko Kopan berrargitaratuko zuenaren antzekoa. Laurogeiko hamarkadan Jorge Burruchaga izan zuen jokaldietako taldekidea, bere golari esker aipatutako Munduko Txapelketako finalean behin betiko 3-2koa jarri zuena, Rummeniggeren Alemaniaren aurka. Ricardok eta Jorgek primeran ulertzen zuten elkar.

Argentinako selekzioarekin 1973tik 1986ra internazionala izan zen, beraz, munduko txapeldun izan zen azken urte horretan. Minutu batzuk bakarrik jokatu zituen Belgikaren aurka, Maradonarekin bat-bikoa egiteko aukera izan zuelarik. Maradonak berak Bocha idolatratzen zuela aitortu zuen. Pelusak honelako adierazpena egin zion zelaian sartzean: “Ongi etorri Maisu, zure zain geunden”, nahiz eta zenbaitek beste gauza bat entzun zuten; “Marrastu, Maisu”. Txapelketa hartan parte hartze txikia izan zuenez, Bochinik zera adierazi zuen; “Ez naiz munduko txapeldun sentitzen”.





## UNE APOTEOSIKOA

CAIko jarraitzaileentzako golik mitikoena, beharbada, 1977ko Txapelketa Nazionaleko finalean Bochini Cordobako Talleres taldearen aurka bina berdintzeko egin zuena izan zen. Pasadizo berezi hartan iruzur susmoak zeuden, diktaturaren urte haietan erregimen militarrek Cordobako klubaren alde egiten baitzuen. Independiente 0-1eko emaitzarekin zihoan, baina epaileak etxekoen aldeko penalti bat eta eskuarekin sartutako gol bat baliozkotu zituen, eta, gainera, Independienteren hiru jokalarik kanporatu zituen txartel gorriarekin. Bazirudien garaipena eta titulua Cordoban geratuko zela, baina Bochini agertu zen, bere golean bukatu zuen jokaldia maisutasunez antolatuz, Independienterik garaikurra emanez.

Bochini 1991n erretiratu zen, atzean 20 urte utzita, 714 partida, 108 gol eta, estatistika ofizialik egon ez arren, 200 gol-pase baino gehiago eginez. Izan ere, hori zen bere espezialitatea: taldekideei gol-pasea ematea, baldin eta gero sartzeko ardura bazuten. Futbola, Bochiniarentzat, bat-bikoak, erregateak eta, batez ere, pase milimetrikoak ziren. Gaur egun ere, argentinarren futboleko, 'pase bochinesco' deitzen zaio aurrelaria atezainarekin eskuz esku uzteko erdiraketa zehatza egiteari. Dena kamiseta berarekin egin zuen, Independienteren elastikoarekin, eta horrela, Argentinak inoiz eman duen futbolari handienetako bat izan da.



## HONORES

- ▶ CA Independienteren sorreraren mendeurrena zela eta, 2005ean **brontzeko estatua** bat eraiki zen Bochiniren irudiarekin, klubaren egoitza nagusian, Avellanedan.
- ▶ 2007ko uztailaren 17tik, Bochinik ia 20 urte jokatu zituen **klubaren estadioko kaleak bere izena darama**.
- ▶ 2021eko abenduaren 5ean, CAIren estadioa **Libertadores de América-Ricardo Enrique Bochini** izendatu zuten, erakundearen idolo gorenaren omenez.
- ▶ 2008. urtez geroztik Tucumango **Club Atlético Famailá** talde apalaren futbol zelaia bere izena dauka.
- ▶ Ez dira asko, Bochini bezala, herrialde osoan hain begiko izateaz harro egon diren futbolariak. **“Bo-Bo-chini!”** oihua ereserki moduko bat izan zen, eta aurkarien jarraitzaileek ere abesten zuten.





## Ricardo Enrique Bochini

Zarate, Argentina, 1954ko urtarrilaren 25a (68 urte)

**Kluba:** CA Independiente (1972-1991)

**Zenbakia:** 10

**Nazioartean:** Argentinako selekzioa (28 partida, golik gabe)

**Jokatutako partidak (golak):** 714 (108)

Lehen Maila: 180 (23)

Txapelketa Metropolitanokoak: 273 (39)

Txapelketa Nazionala: 175 (34)

Libertadores aurreko ligaxka: 10 (1)

Libertadores Kopa: 62 (8)

Hego Amerikako Superkopa: 6 (0)

Interamerikana Kopa: 4 (2)

Interkontinentala: 4 (1)

### Títulos:

Libertadores Kopa: 4 (1973, 74, 75 eta 84)

Interamerikana Kopa: 3 (1973, 74 eta 76)

Interkontentalak: 3 (1973 eta 84)

Argentinako Lehen Mailako Txapelketak: 2 (1983 eta 89)

Txapelketa Nazionalak: 2 (1977 eta 78)

